

Hiru euskal ikasle-talde Espainiako First Lego League txapelketa irabazteko lehian izango dira igandean

Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak eta Euskaltelek 2009ko abenduaren 12an lehen aldiz ekarri zuten Euskadira First Lego League nazioarteko robotika lehiaketa, 10 eta 16 urte arteko neska-mutilentzat mundu osoan aldi berean egiten dena. Sailkapen-fasean parte hartu zuten 20 taldeetatik, hiruk lortu zuten Espainiako First Lego League delakoaren final handira igarotzeko txartela, eta hau igandea izango da Bartzelonako CosmoCaixa gunean.

Euskadi mailako mailkapen faseko talde irabazleak hauek izan dira:

Mikrosak, Gasteizko Jesusen Bihotza Karmeldarren ikastetxeak Robot Onenari saria irabazi zuen; Overclock Axular, Donostiako Axular Lizeoak, Proiektu Zientifiko Onenaren saria; eta Bideluze, Andoaingo La Salle Berrozpekoak, Robotaren Diseinu Onena eta Berrikuntza saria.

Euskal taldeak Bartzelonara joango dira orain. Han beste talde finalista batzuekin lehiatu beharko dute, hain zuzen ere Nafarroa, Bartzelona, Cornellà, Madril, Albacete, Ibiza, Andaluzia eta Extremadurakoekin. Final honetatik aterako den erabateko txapelduna lehiaketako lau kategorietan (proiektu zientifikoan, robotaren diseinuan, robotaren misio-mahaian, eta talde-lanean) puntu gehien lortzen dituen taldea izango da.

Gainera, beste 8 sari izango dira, gaitasun bakoitza bereizita ebaluatuko dutenak: Berrikuntza Onena eta Sormena Robotaren Diseinuan, Ikerketako Proiektu Zientifiko Onena, Robot Onena, Guztientzako Diseinua, Talde-lan Onena, Promesa Gazteak, Talde Espiritu Onena eta Entrenatzaile Onena.

Erabateko txapeldunak astebete izango du nazioarteko zein lehiaketatara joan nahi duen aukeratzeko: World Festival (Atlantan, AEB, 2010eko apirilaren 15etik 17ra), Open European Championship (Istanbulen, Turkia, 2010eko apirilaren 22tik 24ra) eta Open Asian Championship (Taiwanen, 2010eko maiatzaren 6tik 8ra).

Gero, gainerako saridunek astebeteko epea izango dute beren hautagaitza aurkezteko libre geratzen diren postuetarako. Libre dauden postuak baino gehiago badira joan nahi duten taldeak, zotz egingo da horien artean.